

4HEko ikastaroa

*EAEko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde
autonomoetako langileentzako argibideak¹*

2013-2014

*Eskaerak bideratzeko
jarraibideak*

www.ivap.euskadi.net

¹ **Deialdia:** 2013-04-24ko Ebazpena, IVAPeko zuzendariarena. (EHAA: 2013-05-08)

Nork har dezake parte ikastaroan

Ikastaroetan EAEko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako langileek hartu ahal izango dute parte.

- Karrerako zein bitarteko funtzionarioek
- Lan-kontratu mugagabea zein aldi baterakoa duten langileek.

EAEko herri-administrazioetako euskararen normalizazio prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuari jarraiki, deialdi honetatik kanpo geratzen dira irakasleak eta ertzainak.

Deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVAPek finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez.

Ikastaroa eskatzeko baldintzak

Lanpostuko hizkuntza-eskakizunaren arabera aldatzen dira baldintzak:

- **Lanpostuan 4HE edo 3HE dutenak:** eskaera egiteko orduan, 3HE gaindituta eduki behar dute. Baliokidetzen kasuan, ezinbestekoa izango da baliokidetzatza IVAPen hizkuntza-eskakizunen erregistroan jasota egotea. Lanpostuan 4HE dutenek lehentasun osoa izango dute ikastaroan.
- **Lanpostuan 1HE edo 2HE dutenak:** eskaera egiteko orduan, 3HE gaindituta edukitzeaz gain, gutxienez, **unibertsitateko diplomatu agiria** eduki beharko dute.
- Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako langileek gutxienez 2013ko abenduaren 31ra arteko lan-hitzarmena dutela egiaztatu beharko dute. Horretarako, lan-hitzarmenaren hasiera eta amaiera egunak adierazi beharko dituzte eskabidean.

Nola egin behar da eskaera

Eskabide telematikoak

Eskabide telematikoa egin nahi izanez gero, norberaren ordenagailutik egin beharko da, intraneten bidez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako intraneteko Jakina atarian IVAPek ezarritako helbide honetara jo beharko da:

www.ivap.jakina

Sistema hau erabili ahal izateko, eskatzaileak lehenik XL-Nets segurtasuneko sistemaren bitartez identifikatu behar du bere burua.

- Lanorduetako eskaerak sail bakoitzak onartuko edo ukatuko ditu.
- Lanorduz kanpoko eskaerak IVAPek onartuko edo baztertuko ditu.

Paperezko eskabideak

IVAPek beren beregi prestatutako orria erabili beharko da. Inprimakia guztien eskura dago ondorengo helbide elektroniko honetan:

www.ivap.euskadi.net

(euskara> euskara ikastaroak> 4HEprestatzeko ikastaroak> izena emateko inprimakia)

- Lanorduetako eskaeren kasuan, interesatuak eskaera-inprimakia bete, eta bere zerbitzu zuzendaritzara bidali beharko du ezarritako epean. Eskabideak sail bakoitzean jasoko dira, eta sailak berak onartu edo ukatuko ditu.
- Lanorduz kanpoko eskaerak IVAPek onartuko edo baztertuko ditu. Interesatuak, ezarritako epearen barruan IVAPera bidali behar du eskaera..

Noiz egin behar da eskaera

- Lanorduetako eskaerak: 2013ko **maiatzaren 9tik 25era**, biak barne
- Lanorduz kanpoko eskaerak: 2013ko **ekainaren 10etik 26ra**, biak barne

Ikastaroetara joateko baimena eta ordu-kreditua

Baimenak

1.-Lanorduetako ikastaroak: baimena eskatzailearen saileko **zerbitzu zuzendaritzak emango du**, Funtzio Publikoko Sailburuordetzak ezarritako lehentasun-irizpideekin bat etorrita.

Ikastaroa lanorduetan egiteko baimena emateak berekin dakar ikastaro teorikorako baimena ez ezik, proiektuaren tutoretzako 15 orduko baimena ere ematea. 15 ordu horiek noiz emango diren irakasle eta ikaslearen artean adostuko dute.

2.-Lanorduz kanpoko ikastaroak: **IVAPek** onartuko edo baztertuko ditu.

Ordu kreditua

Ikastaro hauei dagokienez, ordu-kredituak ezartzen dituen Aginduari jarraituko zaio (Agindua, 2004ko apirilaren 30ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, EAEko Administrazioako langileen euskalduntzean aplikatuko diren ordu-kredituak ezartzen dituen; EHAA 2004-5-7)

Ondorioz, ikastaroa **lanorduetan** hasi ahal izateko, **beharrezkoa** izango da ordu-kredituaren **saldoa aldekoa izatea**. Lanorduz kanpoko ikastaroek, ordea, ez dute ordu krediturik kontsumituko.

Ikastaro modalitateak

Bi modalitate desberdin eskaintzen dira:

- Ikastaro presentziala **administrazioako taldeetan**
- Ikastaro presentziala edo autoikaskuntzakoa, **HABEk** homologatutako **euskaltegietan matrikula orriarekin**

Eskaera egiteko momentuan, eskatzaileak aukeratu egin beharko du zein modalitatetan egin nahi duen ikastaroa; baita ikastaro presentziala edo autoikaskuntzakoa egin nahi duen.

Ikastaro hauetan HABE curriculumeko 4. maila prestatzeko formakuntza eskainiko da. Ikastaroak bi alderdi izango ditu: batetik, ikastaro teorikoa, 170 ordu ingurukoa, eta, bestetik, nork bere proiektua prestatzeko 15 orduko tutoretza saio pertsonalizatuak. Tutoretza saioak noiz izango diren, irakasle eta ikasleen artean adostuko dute.

Ikasleek bi zatiak egin beharko dituzte ikasturtean zehar.

Ikastaroan parte hartzen duen ikasleak proiektu indibidual bat prestatu beharko du ikasturtean zehar eta, horrek, eskola-orduez gain, lan pertsonala egitea ere eskatuko dio ikasleari.

Ikastaro presentziala administraziooko taldeetan

Talde guztiek egutegi bera dute: **2013ko urriaren 1etik 2014ko maiatzaren 30era.**

Taldeak EAEko **hiriburuetan** osatuko dira: Bilbon, Donostia-San Sebastiánen eta Vitoria-Gasteizen.

Astean hiru egunetan eta bi orduko saioak izango dira: **astelehen, asteazken eta, ostiraletan; goizeko 8:00etatik 10:00etara.**

Administraziooko taldeetan ezin da autoikaskuntzako ikastarorik egin.

Ikastaro presentziala edo autoikaskuntzakoa, HABEk homologatutako euskaltegien matrikula orriarekin

IVAPek onartutako eskaerei dagozkien matrikula orriak bidaliko dizkie interesatuei sail bakoitzeko zerbitzu zuzendaritzaren bitartez.

Eskatzaileak HABEko 4. mailako ikastaroak ematen dituen edozein euskaltegi homologatutan egin ahalko du matrikula.

Eskaera egiteko momentuan, eskatzaileak aukeratu egin beharko du ikastaro presentziala edo autoikaskuntzakoa egin nahi duen.

Matrikula orriaren bitartez eskolatzen den langileak euskaltegiaren egutegia eta ordutegia jarraituko ditu.

Ikastaroa HABEk homologatua izan behar du.

Matrikula orria euskaltegian aurkeztu behar da garaiz, hau da, ikastaroa hasten denerako. 2013ko urriaren 18a baino beranduago entregatzen bada, IVAPek ez du matrikula ordainduko.

Ikaslea inon matrikulatu ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du IVAPera, betiere urriaren 18a baino lehen.

Baldintza horiek bete ezean, IVAPek ez du matrikula orria ordainduko.

Asistentziaren jarraipena eta aprobetxamendu irizpidea

Ondorio guztietarako ikastegia lantokia da ikastaroa lanorduetan egiten duen langilearentzat. Beraz, eskolatze eta puntualitate huts guztiak zuritu beharko ditu bere saileko zerbitzu zuzendaritzan.

Lanorduz kanpo ari diren ikasleen kasuan, berriz, IVAPek honako aprobetxamendu irizpidea aplikatuko du: ikaslearen ikasturte osoko asistentziak, gutxienez, %80 izan behar du. Hori bete ezean, eskatzaileari ez zaio hurrengo ikasturtean eskaerarik onartuko.

Eskoletara joateari uztea

- Eskolan hasi ondoren ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu, horren berri eman behar dio IVAPi eskola uztea gertatzen den une berean.

Horretarako, "*Jakinarazpena: eskoletara joateari uztea*" izeneko inprimakia bete eta IVAPera bidali behar du ikasleak.

Inprimakia bi lekutan eskura daiteke:

- Deialdiaren II eranskinean
 - www.ivap.euskadi.net (*euskara> euskara ikastaroak> Zer egin ikastaroa behin betiko uzteko?> eskola uztea jakinarazteko inprimakia*)
- Eskola-uztearen data inprimakia IVAPen erregistroan sartu den eguna izango da. Inprimakia IVAPera iritsi arte ez da ordu-kredituaren kontaketa etengo.
- Beraz, lanorduetako ikastaroen kasuan eta ordu-kredituaren ondorioetarako, oso garrantzitsua izango da inprimakia lehenbailehen bidaltzea IVAPera.
- Azkenik, IVAPen zeregina izango da ikaslearen sailean eskola-uztearen berri ematea.

Ikasleei buruzko informazioa eta datuen babesa

- Euskara ikastaroa kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Horrela, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu eta sail bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio.
- Deialdiaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalen tratamendua, bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.
 - o Deialdira biltzen diren langileek onartu egiten dute bertan ezarritako helburuak betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua.
 - o Horrela, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez eta baita euren aprobeitxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere.
 - o Onartu egiten dute baita ere, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatze txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. art.).
 - o Onartu egiten dute azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari -HABEri-, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. xedapen gehigarriaren arabera).
- Langileei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia-San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz.

IVAP – 2013.04.22